

I

*Bidez bide*

Dzartada biurkorra? Eten zan aidean  
Abotsaren miesa. «Ezin dot» iñoan.  
Naigabeak eutsozan erpetzarrak josi,  
Ta senar gazteak, ai!, atsalkor garrasi.

Anitz lore ta kimu eztanda bearrez...  
Ak, baiña, eztau iñundik ezpan-ertzik lorez:  
Bizitz-argi bagerik osin agortua,  
Izaki oroz etsi ta arrazoiz uldua...

«Il az! Il az, maitea!» arek oiur barriz;  
Ta, «ene ez al intzanan?», eiagora biziz.  
Zakar dabil aizea bide-ertzez zinkurin,  
Senar saminduaren jantzia lez urdin.

Gero, izar-islatan, zerura begira:  
«Bizi! Erio! Zuen puskek onek dira!»  
Ezin ak lokia aska... Ta bide mukerrez  
Doa pentsati... Ene! oin-lokak top larrez!

Sorgorraren lilluraz salets da narrastu,  
Lurrari itsatsirik dauz bean oin ta mosu.  
Urrin txakur bat uluz... Munean kirkillia  
Etenbage jaurtirik asperen zurbilla...

II

*Otoitza*

Ixilpean gaualdi. Golak izar apain.  
Adiguritsu dabil illazki lur-soin gain...  
Kubil datza gizona, ez dagi zirkiñik;  
Zelatan ditu pizti ta gau-ibilkarik.

Orduz-gero, zotin-uts, bota dau adia,  
Bakotzak dogun barne-zokora jatsia:  
«Jainko! Jainkoa! —diño—. Ene Aita guren!  
Oker ba'dlardutzut, azkets nire oben.

Dinmol dot barrena, naasi baizen erre,  
Arimek balt-yata atsekabez ase:  
Eta blurrizko itxas baltzenean irri,  
Miñaren irrintzia dantzut aspergarri.

A ta ni ginduzuzan Zuk maitez estutu,  
Sendian biziteko biok zoriontsu.  
Ta aren sabelean, Zuk ez zendun gatzatu  
Ezin maitezko suak ondutako kimu?

Baiña, ene Jaun ona! Aitu zan gau batez  
Aren bizi-argia! T'estal eusten lurrez...!  
Nire biotz-miñaren mergatza geroztik!  
Nok a barriz altx-azo erio-lurretik?

Argi? Laiño? Zuk dozuz eskuan, alare,  
Bota ta eriotz. Onetsia zaite!...»  
Ta, zerbait arindua, maite illaren antza  
Eusia edo dau izarrez goirantza.

III

*Oroi-arilka*

Min-otzikaraz doa erreka ozena,  
Ertzez iragarririk illaren izena;  
Ozen ur obirantza senar samindua,  
Maitearen lurrunez bildurik gogua.

Begien aurrez dauko zupu samingarri,  
Elingoan dau osoro negar beroz busti.  
Ta gero, lapur antzo, andik da estaldu,  
Puzaren izpi mea dauala dirdaitsu.

Etxe-barne ixillean oroiz ase dau nai,  
Aren gozoa izanik arantzen osakai:  
Emen zetzan erregin, eztiaren pare;  
Ementxe kulunkatzen seaska txit nare.

Naiz-ta osin-loaren zeru oztiñean,  
Naiz suete-ondoko zizailu jagian,  
Ikusi nai dau beintzat, eder ta zorakor,  
Atsegin ebanaren arpegi maitekor.

Gela-leiora urtenik, begiak ditu urrun...  
Eta, azkenez, intziri: «Ba-zekiñat, kutun;  
Goiztik larratxoria kantuz goora, beera:  
I aunat abeslari zeruan gupera!»

Igotz